



**EUSKADIREN
NAZIOARTEKOTZEAREN
2019ko ERRADIOGRAFIA**

2019ko otsaila

AURKIBIDEA

0. SARRERA	3
1. ESPARRU KONTZEPTUALA	5
1.1. Euskadiko Nazioartekotzearen Erradiografia	5
1.2. Adierazle Berriak	5
2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA	6
2.1. Proiektuaren Helburu Orokorra	6
2.2. Eguneraketa honen Helburu Espezifikoak	6
2.3. Nazioartekotzearen Bigarren Erradiografia lantzeko erabilitako metodologia eta gauzatutako prozesua	6
2.4. Ohar metodologikoak II. Erradiografia honen interpretaziorako	7
2.4.1. Ohar metodologikoa: 2016ko I. Erradiografiaren datuen zehaztapena	7
2.4.2. Datuen alderaketari buruzko ohar metodologikoa: Barne-produktu Gordina	7
3. ADIERAZLEEN SISTEMA	8
3.1. Testuinguru Globaleko Adierazleak: zer ordezkaten du Euskadik munduan	8
3.2. Presentzia Globaleko Adierazleak: zer ordezkaten eta ekartzen du Euskadik gaur egun munduan	12
3.2.1.I. Dimentsioa: Instituzionala	12
3.2.2.II. Dimentsioa: Ekonomia eta Industria	15
3.2.3.III. Dimentsioa: Kultura eta Euskara	18
3.2.4.IV. Dimentsioa: Turismoa	21
3.2.5.V. Dimentsioa: Garraioa	22
3.2.6.VI. Dimentsioa: Zientzia eta Teknologia	24
3.2.7.VII. Dimentsioa: Hezkuntza	25
3.2.8.VIII. Dimentsioa: Ingurumena	26
3.2.9.IX. Dimentsioa: Gizartea	27
3.3. Euskadiren Presentzia Globaleko Adierazleen Mapak Lehenengo eta Bigarren Erradiografien artean izandako Bilakaeraren Laburpena	31
Adierazle Berriak	34
4. EUSKADIREN PRESENTZIA GLOBALEKO ADIERAZLEEN 2019KO MAPAREN LABURPENA	39

0. SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren X. Legealdian agerian geratu zen Euskadiren etorkizuna agertoki globalean jokatzeko delako; hortaz, **herrialde-erronka den aldetik, Euskadiren nazioartekotzea, "Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: Basque Country Estrategia"** dokumentuan jasoa (aurrerantzean, 2020rako BCE), funtsezkoa da beraren ongizaterako eta etorkizunean izango duen lehiakortasunerako.

2020rako BCEk baditu bere Gobernamentu-eredua eta Jarraipen- eta Ebaluazio-sistema, dagozkien aginte-koadroarekin eta kudeaketa-adierazleekin. Horri esker, Jaurlaritzak garatu dituen jarduerak eta ekintzak ebaluatu daitezke, finkatutako helburuak Legealdiaren amaieran noraino bete diren jakiteko. Hala eta guztiz ere, barne-kudeaketaren gauzapearen adierazleak direnez, **ez dituzte erregistratzen eta islatzen Euskadik munduan eragile global gisa duen posizionamenduan eragina duten inguruneko aldagai objektiboen aldaketak.**

Horregatik, 2016an beharrezkotzat jo zen **Eusko Jaurlaritzaren Kanpo-harremanen eragina neurtzeko sistema bat** diseinatzea. Izan ere, Euskadin ez zegoen horrelako sistemarik, eta nazioartean ere ez zegoen erreferente garbirik.

Proiektu aurrendari horren emaitza **"EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN LEHENENGO ERRADIOGRAFIA"** izan zen. Bertan, Euskadik munduan **eragile global gisa duen presentzia eta herrialde gisa duen nazioartekotze maila** deskribatzen ziren.

EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN LEHENENGO ERRADIOGRAFIA, gainera, **input moduan izan zen baliagarria Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: 2018-2020rako Basque Country Estrategia eguneratzeko**; bada, erradiografia horrek berresten ditu Eusko Jaurlaritzaren **XI. Legealdiko** Gobernu Programan definitutako nazioartekotze-ikuspegi eta -konpromisoak.

Bere izaera integral eta zeharkakoagatik, **2020rako BCEren bertsio eguneratuak 27 arlo tematikotara zabalduta** (lehen 19 zituen), lehengo arlo batzuk zenbait arlotan banatuz eta beste batzuk -euren nazioartekotzeko potentzialagatik- txertatuz.

2020rako BCE estrategia eguneratu eta haren irismena hedatu ondoren, **koherentea eta logikoa da** 2016an **definitutako nazioartekotzearen adierazleen sistema** eguneratzea eta osatzea eta **"EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN LEHENENGO ERRADIOGRAFIAREN"** adierazleen bilakaera ebaluatzea, zeren hori baita aurrera egiten ari garen edo ez neurtzeko modu bakarra:

"Definitzen ez dena ezin da neurtu. Neurtzen ez dena ezin da hobetu. Hobetzen ez dena degradatu egiten da beti" (Lord Kelvin)

Dokumentu honek aurkezten ditu **nazioartekotzeko adierazleen sistema** eguneratzeko eta zabaltzeko prozesuan garatutako lana eta lortutako emaitzak; horrek ahalbidetzen du **"EUSKADIREN NAZIOARTEKOTZEAREN BIGARREN ESTRATEGIA"** eskura izatea, **2019. urteko datuekin.**

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren Kanpo Harremanetarako Zuzendaritzaren gidaritzapean garatutako proiektua prozesu parte-hartzaile bat izan da, zeren Jaurlaritzaren beste Sail eta Instituzio batzuen lankidetzarekin gauzatu baita.

1. ESPARRU KONTZEPTUALA

1.1. Euskadiko Nazioartekotzearen Erradiografia

Euskadiko Nazioartekotzearen Bigarren Erradiografia Euskadiren Nazioartekotzearen Lehenengo Erradiografian -2016an- definitu ziren adierazleen sistematik abiatzen da. Sistema horren osagaiak **31 adierazle** dira, alegia, Testuinguru Globaleko 4 adierazle eta Presentzia Globaleko 27 adierazle, **9 dimentsiotan** sailkatuta (Ikus 1. Eranskina, Euskadiren Nazioartekotzearen Lehenengo Erradiografiaren Esparru kontzeptuala).

1.2. Adierazle Berriak

Lehen esan dugunez, **2020rako BCE 27 jarduera-arlo tematikotara zabaldu da** (lehen 19 zituen); horregatik, arlo tematiko berrietarako egon zitezkeen nazioartekotze-adierazleen identifikazioa eta azterketa egin dira.

Adierazle berriak aukeratzeko prozesuak honako hau hartu du oinarritzat: eskala globalean erabiltzekoak diren adierazle nagusien irizpide anitzeko azterketa, nazioarteko posizionamenduari buruz orain dauden ebaluazioak, eta datuen eskuragarritasuna, adierazleen sistemarako 2016an egin zen diseinuan aplikatutako metodologiaren arabera.

1. URRATSA: ADIERAZLEEN AZTERKETA ETA AUKERAKETA: IRAGAZKIEN APLIKAZIOA	2. URRATSA: ADIERAZLEAK LEHENESTEA
<p>1. Iragazkia: Eduki daitezke Euskadiri buruzko datu eguneratuak (kalkulatu den edo adierazlea lortzeko daturik dagoen kontuan hartuta)?</p>	<p>1. LEHENESTEKO IRIZPIDEA: Konpara daiteke adierazlea eskala globalean?</p>
<p>2. Iragazkia: Fidagarria da adierazlea osatuko duten datuak lortzeko erabili den informazioa edo aplikatu den metodologia?</p>	<p>2. LEHENESTEKO IRIZPIDEA: Zenbateraino da garrantzikoa adierazlea analizatutako dimentsiorako?</p>
<p>3. Iragazkia: Adierazleak ematen duen informazioa behar bezain adierazgarria da behatutako dimentsioa analizatzeko?</p>	

Prozesu horren emaitza gisa, **zazpi adierazle berri proposatzen dira.**

2. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

2.1. Proiektuaren Helburu Orokorra


Euskadik gaur egun munduan duen presentzia globala eta nazioartekoa neurtzen eta aztertzen laguntzea, dokumentuzko oinarri enpiriko bat eta **adierazleen sistema** bat abiapuntutzat hartuta, horren bidez neurtzeko Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanek nazioartekotzearen emaitzetan duten eragina, helburu honekin: **Eusko Jaurlaritzaren orientazio estrategikoan eta jardunean laguntzea**, EUSKADI eta euskal gizartea, ekonomia, instituzioak eta enpresak nazioartean sendotzeko lidergo-lanean. Eta, horrekin batera, lankide diren beste erakunde edo elkarte batzuen **jarduna orientatzea**, nazioartekotzea herrialde-estrategia bihurtzeko, euskal gizartearen ongizate maila eta euskal ekonomiaren lehiakortasuna oro har areagotzeko.

2.2. Eguneraketa honen Helburu Espezifikoak

- Euskadik mundu globalizatuan 2019. urtean okupatzen duen **posizio erreala neurtzeko sistema** garatzen jarraitzea, nazioartekotzearen dimentsioetan.
- **2016. urtetik 2019. urtera izandako bilakaera** bistaratzeko, nazioartekotzearen lehenengo eta bigarren erradiografiaren aldietan adierazleentzako lortutako balioak alderatuz.
- **Adierazle berriak** txertatzea, **2020rako BCEren** eguneraketan txertatutako arlo tematiko berrietan oinarrituta.

2.3. Nazioartekotzearen Bigarren Erradiografia lantzeko erabilitako metodologia eta gauzatutako prozesua.

Honi atxikitako grafikoak aurkezten du, modu eskematikoan, bigarren erradiografia egiteko heldutako prozesua.



2.4. Ohar metodologikoak II. Erradiografia honen interpretaziorako

2.4.1. Ohar metodologikoa: 2016ko I. Erradiografiaren datuen zehaztapena

Euskadiren Nazioartekotzearen 2019ko Erradiografia” izeneko txosten hau lantzerakoan, 2015-2106 aldiari dagozkion bi adierazleren¹ balioa eguneratu da.

Garai hartan erabili ziren datuak behin-behinekoak ziren eta/edo adierazle jakin baten ezaugarriak eta balioak nazioarteko ikuspuntutik deskribatzen zituen prozesu estatistikoa ez zegoen finkatuta zegokion erakunde eskudunaren barruan. I. Erradiografia egin zenez geroztik aurrerapen mardula egin da prozesu estatistiko horietan, eta, hortaz, 2016. urteko behin betiko datu berraztertua aplikatzea erabaki da, adierazlearen bilakaera modu egokian ebaluatu ahal izateko.

2.4.2. Datuen alderaketari buruzko ohar metodologikoa: Barne-produktu Gordina

Edozein lurraldetako BGPa bi data desberdinetan alderatzen denean, honako hau hartu behar da kontuan:

- BPGaren bilakaera uneko prezioetan (BGP nominala)
- BPGaren bilakaera prezio konstanteetan (BPG erreala)
- Behatutako aldi truke-tasak USDren eta EUROren artean izandako aldaketa.

BPG nominala da lurralde batean denbora-tarte jakin batean –normalean urtebete izaten da- ekoiztutako azken ondasun eta zerbitzuen ekoizpenaren balioa, merkatuko prezioetan; **BPG erreala**, berriz, ekoizpen horrek prezio konstanteetan duen balioa da.

BPG nominalak prezio horien igoerak edo jaitsierak islatzen ditu, hurrenez hurren inflazioa edo deflazioa badago; **BPG errealak**, berriz, oinarri-urte bateko prezioak hartzen ditu oinarritzat (dokumentu honetan, 2015. urtea), eta ahalbidetzen du lurralde jakin batean bi denbora-tarte desberdinetan **ekoiztutakoa** alderatzea, zeren prezioetan gertatutako aldaketak isolatzea ahalbidetzen baitu, eta, hortaz, **erosteko ahalmen garbia** islatzen du, prezioek denboran zehar izandako aldaketak alde batera utzita.

¹ **CE17. Adierazlea:** “euskarako eta euskal kulturako katedra eta lektoretza sarea munduan”, eta **ED25. Adierazlea:** “Erasmus programaren onuradun diren unibertsitate-irakaskuntzetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna”.

3. ADIERAZLEEN SISTEMA

Hiru atal ditu:

- 3.1. atalean, **testuinguru globaleko lau adierazle** aurkezten dira: Euskadiko biztanleria, azalera, biztanleria-dentsitatea eta Euskadiko Barne-produktu Gordina. Horren helburua da Euskadik Europa mailan eta eskala globalean duen garrantziari buruzko ezagutza eskaintzea, demografia, lurralde eta ekonomiaren ikuspuntutik.
- Hurrengo atalean -3.2.-, Nazioartekotzearen Lehenengo Erradiografian aukeratu ziren **Euskadiren presentzia globaleko adierazleak** bistaratzen dira (**27 adierazle**), behatutakoaren dimentsioaren arabera sailkatuta.
- 3.3. atalean, 2018-2020rako estrategiaren jarduera-arlo tematiko berri batzuen arabera **proposatutako zazpi adierazle berri** sartzen dira.

3.1. Testuinguru Globaleko Adierazleak: zer ordezkaten du Euskadik munduan

C.1. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren pisu erlatiboa

	Biztanleria, 2015. urtea (Biztanle kopurua)	Euskadik ordezkaten duen %	Biztanleria, 2018. urtea (Biztanle kopurua)	Euskadik ordezkaten duen %	Bilakaera (Biztanle kopurua)
Euskal Autonomia Erkidegoa	2.173.210	% 100,00	2.188.017*	% 100,00	+ % 0,68
Europa (EB28)	508.191.116	% 0,43	512.379.225	% 0,43	+% 0,82
Mundua	7.346.633.037	% 0,03	7.594.270.356	% 0,03	+% 3,37

Iturria: Eustal + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

*Biztanleria 2019.01.01ean (Eustat)

2018an, munduko biztanleriaren % 0,03 Euskadin bizi zen, hau da, munduan bizi diren **3.471 pertsonetatik bat Euskadin bizi da.**

Euskadiko biztanleria oinarritzat hartuta, modu irudikarian mundua biztanle kopuru bereko 3.471 herrialdetan zatitu liteke.

EB28ko herrialdeak barne hartzen dituen biztanleria-ranking batean, Euskal Autonomia Erkidegoa **23. tokian** dago, biztanleen **% 0,43rekin**, Eslovenia, Letonia, Estonia, Zipre, Luxenburgo eta Maltaren gainetik. **Europako 234 biztanletatik bat Euskadin bizi da.**

2015. urtearekin alderatuta, tokia ez da aldatu. 2015-2018 aldian izandako bilakaerak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren hazkundera berresten du, nahiz eta **biztanleriaren hazkunde-tasa** (% 0,68) EB28koa baino apur bat txikiagoa den (% 0,82) eta biztanleriak munduko eskalan izandako hazkunde-tasa (% 3,37) baino ia bost aldiz txikiagoa.

C.2. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko azaleraren pisu erlatiboa

	Azalera, 2105. urtea (km ²)	Euskadik ordezkutzen duen %	Azalera, 2105. urtea (km ²)	Euskadik ordezkutzen duen %
Euskal Autonomia Erkidegoa	7.234	% 100,00	7.234	+% 100,00
Europa (EB28)	10.530.751	% 0,07	10.530.751	+% 0,07
Mundua	134.325.435	% 0,01	134.279.917	+% 0,01

Iturria: Eustal + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

Euskadiren azalera **munduaren osoko azaleraren % 0,01 da.**

Euskadiren azalera oinarrituta, modu irudikarian mundua lurralde-dimentsio bereko 18.562 herrialdetan zatitu liteke; Nazio Batuetan erregistratutako herrialde burujabeen eta mendeko lurraldeen osoko kopurua, berriz, 234 da gaur egun.

Euskadiren azalera **EB28ren osoko azaleraren % 0,07 da.**

Munduko Bankuaren 2018ko datuen arabera, munduaren lehorreko azalera 2015 eta 2018 bitartean izandako jaitsieraren balizko esplikazio bat klima-aldaketaren eraginez itsas mailak izandako igoera izan liteke.

C.3. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren dentsitatea

	Biztanleriaren dentsitatea, 2015. urtea (biztanleak / km ²)	Euskadiren aldaketa, Europa eta Munduaren aldean	Biztanleriaren dentsitatea, 2018. urtea (biztanleak / km ²)	Euskadiren aldaketa, Europa eta Munduaren aldean	Bilakaera Biztanleriaren Dentsitatea (biztanleak / km ²)
Euskal Autonomia Erkidegoa	300	--	302	--	+% 0,67
Europa (EB28)	48	% 522,52	49	% 521,64	+% 0,82
Mundua	55	% 449,28	57	% 434,81	+% 3,64

Iturria: Eustal + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2018. urtean, Euskadiko biztanleriaren dentsitatea **302 bizt./km²** zen, munduko osoko dentsitatea (57 bizt./km²) baino % 435 handiagoa eta EB28koa (49 bizt./km²) baino % 552 handiagoa.

2015. urtearekin alderatuta, **Euskadiko biztanleriaren dentsitateak EB28koa** eta mundukoa **baino nabarmen handiagoa** izaten jarraitzen du (% 522 eta % 435 2018an,

hurrenez hurren, eta % 552 eta % 449 2015ean), beheranzko aldaketa oso txiki batez, Euskadiko biztanleriaren hazkunde-tasa txikiagoaren eraginez.

C.4. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren pisu erlatiboa

Uneko prezioetan adierazitako BPG

	Uneko prezioetan adierazitako BPG 2015. urtea (milioi eurotan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Uneko prezioetan adierazitako BPG, 2018. urtea (milioi eurotan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Bilakaera
Euskal Autonomia Erkidegoa	EUR	68.497	% 100,00	EUR	76.809	% 100,00	+% 12,13
Europa (EB28)	EUR	14.810.308	% 0,47	EUR	15.848.564	% 0,48	+% 7,01
Mundua	EUR ⁽¹⁾	71.047.867	% 0,10	EUR ⁽²⁾	72.654.014	% 0,11	+% 2,26

Iturria: Eustal + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

Oharra: (1) 2015eko USD/EUROrako erabilitako truke-tasa = 0,895981769

Oharrak: (2) 2018ko USD/EUROrako erabilitako truke-tasa = 0,846740050

	Uneko prezioetan adierazitako BPG 2015. urtea (milioi USDtan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Uneko prezioetan adierazitako BPG, 2018. urtea (milioi USDtan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Bilakaera
Mundua	USD	75.003.074	--		85.804.390	--	+% 14,4

Iturria: Munduko Bankua

2015eko prezio konstanteetan adierazitako BPG

	Prezio konstanteetan adierazitako BPG 2015. urtea (milioi eurotan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	2015eko prezio konstanteetan adierazitako BPG (milioi eurotan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Bilakaera
Euskal Autonomia Erkidegoa	EUR	68.497	% 100,00	EUR	74.920	% 10,00	+% 9,4
Europa (EB28)	EUR	14.810.308	% 0,47	EUR	15.809.269	% 0,48	+% 6,75
Mundua	EUR ⁽¹⁾	67.201.387	% 0,10	EUR ⁽²⁾	69.241.242	% 0,11	+% 3,04

Iturria: Eustal + Eurostat + Munduko Bankua + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

Oharrak: (1) 2015eko USD/EUROrako erabilitako truke-tasa = 0,895981769

Oharrak: (2) 2018ko USD/EUROrako erabilitako truke-tasa = 0,846740050

	Prezio konstanteetan adierazitako BPG, 2015. urtea (milioi USDtan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Prezio konstanteetan adierazitako BPG, 2018. urtea (milioi USDtan)		Euskadik ordezkatzeko duen %	Bilakaera
Mundua	USD	75.003.074	--		81.773.906	--	+% 9,03

Iturria: Munduko Bankua

Euskal Autonomia Erkidegoak, uneko prezioetan adierazitako 76.809 milioi euroko BPGarekin, Europako (EB28) BPGaren % 0,48 eta munduko BPGaren % 0,11 jartzen du.

Euskadiko BPGan oinarrituta, mundua tamaina bereko 946 ekonomiatan zaitu liteke.

Euskal Autonomia Erkidegoko BPG errealak 2015 eta 2018 bitartean izandako hazkundera % 9,4 izan da, prezio konstanteetan adierazita, hau da, EB28ko hazkundera baino % 2,65 handiagoa eta munduko ekonomiaren hazkundera baino % 0,37 handiagoa (USDtan). Datu horiek erakusten dutenez, euskal ekonomiaren pisu erlatiboak hazten jarraitzen du bai Europako ekonomian eta bai munduko ekonomian.

Oharra:

Munduko Bankuaren estatistikak USDtan argitaratzen dira; horrenbestez, Euskadiko datuekin alderatzeko xedez munduko BPGtik hartzen diren datuak truke-tasaren eraginpean daude.

- 2015eko USD/EUROrako erabilitako truke-tasa = 0,895981769
- 2018ko USD/EUROrako erabilitako truke-tasa = 0,846740050

Truke-tasaren aldaketa horren eraginez, munduko BPGaren bilakaera aldatu egiten da USDtan edo eurotan aztertuz gero, bai uneko prezioetan eta bai prezio konstanteetan. Hala, USDtan adierazita, munduko BPGak 2015-2018an uneko prezioetan izandako bilakaera (+% 14,4) prezio konstanteetan izandakoa (+ % 9,03) baino handiagoa da. EUROTAN adierazita, berriz, munduko BPGak 2015-2018an uneko prezioetan izandako bilakaera (+% 2,26) prezio konstanteetan izandakoa (+% 3,04) baino txikiagoa da.

3.2. Presentzia Globaleko Adierazleak: zer ordezkutzen eta ekartzen du Euskadik gaur egun munduan

Jarraian, **Euskadiren presentzia globaleko** adierazleen mapa aurkezten da (**27 adierazle**), behaketaren xede den **dimentsioaren** arabera sailkatuta.

3.2.1. I. Dimentsioa: Instituzionala

I.5. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko Ordezkaritza Kontsularra

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2016an	Adierazlearen balioa 2019an	Bilakaera
Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu kopurua	Kontsulatu kopurua	43	50	+7

Iturria: Bilboko Talde Kontsularra + Irekia

Gaur egun, Euskadin **50 herrialdek dute presentzia kontsularra, sei kontsulatu nagusiren** (Kolonbia, Frantzia, Maroko, Peru, Errumania eta Venezuela) eta berrogeita lau ohorezko kontsulaturen bidez.

50 kontsulatu horiek ordezkutzen dituzten herrialdeek **munduko biztanleriaren % 19,34** hartzen dute, eta haien ekonomiek **munduko Produktu Gordinaren % 30** inguru jartzen dute.

Euskadin **EB28ko 23 herrialdek** dute presentzia kontsularra, Europako biztanleriaren % 80,2 eta beraren BPGaren % 88,1 ordezkatur.

2016 eta 2019 bitartean, Euskadiko presentzia kontsularra hazi egin da, zazpi herrialde berriekin (Danimarka, Eslovenia, Islandia, Malta, Mauritania, Moldavia eta Nepal).

2016. urtearekin alderatuta, ordezkari mailak gora egin du biztanleriaren ikuspuntutik eta berdin geratu da Munduko Produktu Gordinaren ikuspuntutik.

I.6. Adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren Presentzia Instituzionala munduan

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2016an	Adierazlearen balioa 2019an	Bilakaera
Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkari kopurua + BTI bulego kopurua + Kanpoko aholkulariaren lankidetzak-akordio egonkorren kopurua	Kopurua	75	82	+7

Iturria: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzaren kanpoko sare instituzionala **82** elementuz osatuta dago: **5 ordezkaritza**, munduko 6 kokapen geografikotan eta egoitzarekin Belgika (Brusela), Argentina, Txile, Kolonbia, Estatu Batuek eta Mexikon; **Basque Trade & Investment-en** kanpoko sarearen bitartez Euskadiren interes ekonomiko eta komertzialak ordezkatzan dituzten **11 bulego** (Alemania, Brasil, Txina, AEB – Washington, India, Italia, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublikak, Errusia eta Singapur –ASEAN eremua-); 5 bulego Eusko Jaurlaritzaren Ordezkaritzetan, Argentina (+ Uruguai), Txile, Kolonbia, AEB - New York eta Mexikon; eta izaera ekonomikoko **kanpo-ahokularien** sare bat, **66 herrialdetan diharduena**.

Sare horren bidez, Eusko Jaurlaritzak presentzia du **munduko Produktu Gordinaren % 89,43** biltzen duten **82 herrialdetan**.

82 herrialde horietatik, **18 "lehenasunezko herrialdeak"** dira, Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: **BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN** definitutakoaren arabera. **Eusko Jaurlaritzak presentzia du** –Lehendakaritzaren, BTI bulegoen eta kanpoko aholkulariekiko lankidetzak-akordio egonkorren bitartez- **Euskadirentzat lehenasunezko zatitua definituta dauden herrialde guztietan, hots, hamazortzi herrialdetan** (Alemania, Argentina, Kanada, Txile, Txina, Kolonbia, Danimarka, AEB, Finlandia, Frantzia, Guatemala, India, Japonia, Mexiko, Peru, Erresuma Batua, Hegoafrikar Errepublikak eta Suedia).

Lehenasunezko 18 herrialde horiek **munduko Produktu Gordinaren % 66,81** biltzen dute.

2016. urtearekin alderatuta, nabaria da **apustu sendo bat egin dela** zuzeneko presentzia eta/edo kanpoko aholkularien bidezko presentzia **Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan areagotzeko**. Izan ere, hamaika herrialde berri sartu dira harremanen sarean: Bolivia, Costa Rica, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Panama, Paraguai, Dominikar Errepublikak eta Uruguai.

I.7a. Adierazlea: Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016ko stocka)	Adierazlearen balioa (2019ko stocka)	Bilakaera
Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioen kopurua (stocka, 2004. urteaz geroztik)	Akordio kopurua (stocka)	453	471	+18

Iturria: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza

Azken bost legealdietan, Eusko Jaurlaritzak eta beraren sailek **nazioarteko 471 akordio** sinatu dituzte guztira; horietatik, **30 akordio aldeaniztunak** dira eta **441 alde biko akordioak**.

Sinatutako 471 akordio horiek **munduko BPGaren % 84,58 ordezkaten duten 56 herrialde** hartzen dituzte guztira, era askotako gaien inguruan (Kanpo harremanak; Nekazaritza eta Arrantza; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza; Kultura; Hizkuntza Politika; Hezkuntza; Turismoa; Enplegua eta Gizarte Politikak; Ingurumena, Jasangarritasuna eta Lurralde Politika; Osasuna).

Eusko Jaurlaritzak orain arte sinatu dituen alde biko 441 akordioetatik, **277 (% 62,8)** Nazioartekotzeko Esparru Estrategia 2020: **BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN** definitutako **"18 lehentasunezko herrialdeetako"** batekin sinatu dira (Alemania, Argentina, Kanada, Txile, Txina, Kolonia, Danimarka, AEB, Finlandia, Frantzia, Guatemala, India, Japonia, Mexiko, Peru, Erresuma Batua, Hegoafrikar Errepublika, Suedia). Horiez gain, horrelako akordioak sinatu dira beste 38 herrialderekin: Europar Batasuna (11 herrialde, 68 akordio), Europako beste herrialde batzuk (4 herrialde, 8 akordio), Latinoamerika (12 herrialde, 70 akordio), Asia (6 herrialde, 12 akordio), Afrika (3 herrialde, 3 akordio) eta Australia eta Zeelanda Berria (3 akordio).

I.7b. Adierazlea: Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016ko stocka)	Adierazlearen balioa (2019ko stocka)	Bilakaera
Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareen kopurua	Sare kopurua	75	122	+47

Iturria: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Eusko Jaurlaritza

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak, bere 12 sailen bitartez (Lehendakaritza barne sartuta), euskal erakundeen presentzia duten **122 nazioarteko saretan** parte hartzen du; horietatik, **79 sarek europar irispidea dute eta 43 sarek irispide globala**.

2016. urtearekin alderatuta, ahalegin mardula eta oso bilakaera positiboa antzematen dira; izan ere, urte hartan 75 nazioarteko sare zeuden: **europar irispideko 55 sare eta irispide globaleko 20 sare**.

Nazioarteko sare hauetan parte hartzen duten Sailak gai hauetan eskumenak dituztenak dira: Kanpo Harremanak; Gobernantza Publikoa eta Autogobernua; Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak; Enplegua eta Gizarte Politikak; Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza; Ogasuna eta Ekonomia; Hezkuntza; Osasuna; Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa; Kultura eta Hizkuntza Politika; Segurtasuna; Lana eta Justizia.

I.8. Adierazlea: Munduko Euskal Etxeen Sarea

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)	Adierazlearen balioa (2019)	Bilakaera
-------------------------------------	-------------------	-----------------------------	-----------------------------	-----------

Munduko Euskal Etxeen kopurua	Euskal Etxeen kopurua	190	193	+3
-------------------------------	-----------------------	-----	-----	----

Iturria: euskaletxeak.net

Gaur egun, guztira **193 Euskal Etxe** daude erregistratuta **25 herrialdetan**. Argentinak Euskal Etxeen % 44 kontzentratzen ditu (85 Euskal Etxe, 2016an baino bat gehiago), eta Ameriketako Estatu Batuek % 20 dituzte (38 Euskal Etxe).

2016 eta 2019 bitartean, **hiru Euskal Etxe berri** sortu dira, bat Argentinan, beste bat Frantzia eta hirugarrena Perun.

3.2.2. II. Dimentsioa: Ekonomia eta Industria

E.9. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak esportatzeko joera

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPG	%	% 31,95	% 33,18	+% 1,23

Iturria: Eustal + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

2018. urtean, **Euskadiko ondasunen kanpo-merkataritzak % 33,18 esportatzeko joera** erakusten du; **eskala globalean**, berriz, munduko ondasunen esportazioak munduko Produktu Gordinaren **% 22,55aren** baliokideak dira.

Euskal ekonomiaren esportatzeko joera handi horrek –munduko batez bestekoa baino % 10,6 handiagoa- **euskal enpresen kanporako orientazio** garbia islatzen du.

2015-2018 garaian, **Euskadiko ondasunen kanpo-merkataritzaren esportatzeko joera % 1,23 hazi da; eskala globalean**, berriz, munduko ondasunen esportazioen pisua % 2,11 igo da Munduko Produktu Garbia erreferentziatza hartuta. Horrek adierazten du euskal ekonomiaren esportatzeko joerak hobetzen jarraitzen duela eta munduko batez bestekoa baino askoz ere handiagoa izaten jarraitzen duela, hots, % 10,6 handiagoa 2018. urtean; hori horrela izan arren, 2018an esportatzeko joeraren aldagaian dugun posizioa (abantaila konparatiboa) 2015ekoa baino % 0,9 txikiagoa da (2015ean 11,5 puntu geunden -ehunekotan neurtuta- munduko batez bestekoaren gainetik, eta 2018an 10,6 puntu).

Bilakaera hori aztertuta, azpimarratzekoa da 2018an Euroaren balioa % 5,4 igo zela AEBetako dolarraren aldean.

E.10. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek munduko ondasunen esportazioetan duten pisu erlatiboa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
Euskadiko ondasunen esportazioak / Munduko ondasunen esportazioak	%	% 0,1492	% 0,1556	+% 0,0064

Iturria: Eustal + Trademap + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2018. urtean, **Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioak munduko esportazioen % 0,15** izan ziren; hala, munduan esportazio-jardueraren bidez sortutako 643 euro bakoitzeko bat Euskadin sortzen zen.

Gure Barne-produktu Gordina Munduko Produktu Gordinaren % 0,11 denez, gure ondasunen esportazioen dimentsio handiagoak (% 0,15) garbi erakusten ditu bai gure irekitasun-maila handia eta bai gure industriaren lehiakortasuna.

EB28ri dagokionez, **euskal esportazioak haren estatu kideen guztizko esportazioen % 0,47** izan ziren 2018. urtean (EBren barneko esportazioak eta salmentak).

2015-2018 garaian, % 0,15aren inguruan mantendu da **Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek munduko ondasunen esportazioetan duten pisu erlatiboa, merkatu-kuota** irabazi dugun arren (2018. urtean, munduko esportazio-jardunaren bidez sortzen ziren 643 eurotik bat Euskadin sortua zen, eta 2015. urtean 670 eurotik bat).

EB28rekin alderatuta, **Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek EBko estatu kideen esportazioetan** (EBren barneko esportazioak eta salmentak) **duten pisu erlatiboa** apur bat igo da: % 0,02.

E.11. Adierazlea: Euskadin egindako AZIaren balioa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2013-2015)	Adierazlearen balioa (2016-2018)	Bilakaera
Euskadin aldi jakin batean egindako AZIaren stockaren balioa	Miloi eurotan	3.385,79	10.962,17	+7.576,38

Iturria: DataInvex, Espainiako Atzerriko Inbertsioaren Estatistikak + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2016-2018 aldian **Euskadik**, munduko Produktu Gordinaren % 0,11 ordezkatzen zuela, **10.962,17 milioi euroko** zuzeneko inbertsioa jaso zuen atzeritik. Datu horrek **mundu osoan egindako atzerriko zuzeneko inbertsio osoaren % 0,21** ordezkatzen du. Gainera, **2016-2018 hirurtekoa azken hamarkadako emankorra izan da atzerriko inbertsioak ekartzeari dagokionez.**

Aldi berbererako (2016-2018) AZIa Barne-produktu Gordinari lotuta kontsideratzen bada, Euskadik jasotako atzerriko zuzeneko inbertsioa gure BPGaren **% 4,94** izan zen, alegia, munduko batez bestekoaren **bikoitza baino handiagoa, haren ratioa Munduko Produktu Gordinaren % 2,4** baita.

Datu historiko horrek adierazten du **% 223,77ko** igoera bat egon dela 2013-2015 aldian erakarritako 3.386 milioi euroen aldean. Euskadiren aurrerapen mardul horren eragile nagusia inbertsio alemana izan zen (izan ere, 2016-2018 aldian atzerriko zuzeneko inbertsioa 10.962 milioi euro izan ziren, eta horren % 63,55 Alemaniatik etorri zen), eta beraren atzean Erresuma Batukoa eta Luxenburgokoa, kontuan hartuta lurralde horrek operazio korporatibo askoren egoitza fiskal moduan funtzionatzen duela.

Ikuspuntu sektorialetik begiratuta, Euskadira etorritako atzerriko inbertsio horren % 82 erdi- eta goi-mailako teknologiko sektore industrialetan kontzentratzen da gaur egun, hain zuzen ere espezializazio adimendunaren RIS3 estrategiarekin bat datozen sektoreetan.

2016-2018 aldiko datuak 2013-2015 aldikoekin alderatzen baditugu, **Euskadik nabarmen hobetzen du bere posizio lehiakorra, zeren mundu osoan guztira egindako Atzerriko Zuzeneko Inbertsioaren (AZI) % 0,08tik % 0,21era pasatu baita.**

E.12. Adierazlea: Euskal enpresen kanpoko ezarpenak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016ko stocka)	Adierazlearen balioa (2019ko stocka)	Bilakaera
Euskal enpresen kanpoko ezarpenen kopurua	Kopurua	1.688	1867*	+179

Iturria: 2016. urtea: CIVEX; 2019. Urtea: CIVEX + BTI

2018. urtean, euskal enpresen kanpoko ezarpenen stocka **1.867 ezarpen** ziren, hau da, 2016. urtean baino % 10,6 gehiago. Hala eta guztiz ere, datu hori zehaztasun gehiago hartu behar da, zeren ez baita datu-iturri berbera erabili, aurreko iturriaren datuak -CIVEX- oraindik ere eguneratu gabe daudelako (ikus ohar metodologikoa*).

Munduan gure lurraldetik kanpo dauden euskal enpresen **1.867 ezarpenetatik**, 1.201 **merkataritza-ezarpenak dira (% 64,3)** eta 666 **produktzio-ezarpenak (% 35,7)**.

Euren 1.867 ezarpenen bidez, euskal enpresek **munduko Produktu Gordinaren % 93,06 ordezkatzen duten 92 herrialdeetan** dute presentzia.

Ezarpen horien **% 64,4 BASQUE COUNTRY ESTRATEGIAN** definitutako **"lehentasunezko"** hamazortzi herrialdeetan daude.

*Ohar metodologikoa:

Basque Trade & Investmentek (BTI) jakinarazten du 2020rako CIVEX eguneratu bat egongo dela, 2019. urteko data jakin baterako. 2019. urteari buruzko datuak bi iturritatik hartu dira: Civexetik beretik (Erradiografia hasterakoan eguneratu gabe zegoen) eta Basque Trade & Investmenten bulegoetan 2016-2019 aldian erregistratutako ezarpenetatik. Dokumentu hau erredaktatzeko unean, ez da bermatzen 2019. urterako erakutsitako datuak estatistikoki erabat fidagarriak direla.

Erabilitako iturrien erregistroak:

- CIVEX: **525 enpresa** eta **1419 ezarpen** (987 eta 432, merkataritzakoak eta produktiboak).
- BTI+CIVEX: **1867 ezarpen** (1201 eta 666, merkataritzakoak eta produktiboak); ez da identifikatzen enpresen kopurua.

3.2.3. III. Dimentsioa: Kultura eta Euskara

CE.13. Adierazlea: Munduko Euskal Ondarea

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
UNESCOK "Munduko Ondare" deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu mailan deklaraturako elementuak guztira	%	% 0,3	% 0,27	-% 0,03

Iturria: UNESCO + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

Euskadik, munduko biztanleriaren % 0,03 eta azaleraren % 0,01 biltzen dituela, **UNESCOK "Munduko Ondare"** kategorian deklaraturako **1121 elementuetako hiru (% 0,27)** ditu.

EB28ri dagokionez, Euskadik, beraren biztanleriaren % 0,43 eta azaleraren % 0,07 ordezkatzen dituela, eremu geografiko horretako 28 herrialdeetan **"Munduko Ondare"** deklaraturako 383 elementuen **% 0,078** ditu.

2016 eta 2018 bitartean, UNESCOK **90 elementu berri** deklaratu ditu munduko ondare, eta horietako bat ere ez dago Euskadin; beraz, Euskadiren pisu erlatiboa apur bat jaitsi da, **"Munduko Ondarearen"** % 0,3 ordezkatzetik % 0,27 ordezkatzera pasatuz.

EB28 mailan, ia posizio berdinean mantendu da, zeren elementu berri bakarra deklaratu baita **"Munduko Ondare"**, Erresuma Batuan hain zuzen.

CE.14. Adierazlea: Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
-------------------------------------	-------------------	-----------------------------	-----------------------------	-----------

Euskadiko kultura-industrien esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 0,1532	% 0,1474	-% 0,0058
---	---	----------	----------	-----------

Iturria: Eustal + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2018 urtean, **euskal kultura-industriek euskal esportazio guztien % 0,15** bildu dituzte, eta **kultura-industrien ondasunen munduko esportazio guztien % 0,08**.

2018. urtean, **Euskadiko kultura-industrien ondasunen esportazioen % 73 eta inportazioen % 59,4 "Liburuen eta aldizkarien edizioa eta beste zenbait argitalpen-jarduera"** sailekoak dira. Sail horrek **20,8 milioi euroko merkataritza-saldo positiboa** izan du.

2015eko balioa 2018koarekin alderatuta, Euskadiko **kultura-industriek** ondasunen **esportazio guztien** artean duten **pisu erlatiboa** guztira esportatutakoaren % 0,15aren inguruan mantentzen da, beheranzko joera izan arren.

Kultura-industrien ondasunen **munduko esportazioetan** duen pisua **% 0,01 igo da** (% 0,07tik % 0,08ra pasatu da 2015etik 2018ra).

Kultura-ondasunen euskarri fisikoko esportazioek beheranzko joera dutenez, batez ere argitalpen-jarduerei dagokienez, igoera txiki hori **oso emaitza positiboa da Euskadiko kultura-industrien esportazioetarako**.

Neurri handi batean, emaitza horren eragilea "Zinema- eta bideo-jarduerak eta telebista-programak" (EJSN 591) multzoaren hazkunde esanguratsua da. Hala, jarduera horiek kultura-industrien ondasunen esportazio guztien % 1,37 soilik ziren 2015. urtean, eta 2018. urtean industria horrek guztira esportatutakoaren % 25,29 izatera iritsi dira.

CE.15. Adierazlea: Euskal kirolari olinpikoak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2000-2012)	Adierazlearen balioa (2000-2018)	Bilakaera
Udako Olinpiar Jokoen azken 4 edizioetan parte hartu duten euskaldunak	Pertsona kopurua	101	122	+21

Iturria: Albistea + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

122 euskal kirolarik parte hartu dute **udako Olinpiar Jokoetan azken bost edizioetan**: Sidney 2000, Atenas 2004, Pekin 2008, Londres 2012 eta Rio de Janeiro 2016.

Udako Olinpiar Jokoen azken bost edizioetan parte hartu duten mundu osoko 54.337 atleten % 0,22 euskaldunak dira. Oso datu positiboa da, Euskadik munduko biztanleriaren % 0,03 hartzen duela kontuan hartuta.

2016an Rio de Janeiron egindako udako azken Olinpiar Jokoetan, 21 euskal kirolarik parte hartu zuten.

Euskal olinpiar kirolarien pisu erlatiboa ia aldatu gabe mantendu da, 2000. urteaz geroztik olinpiar jokoetan parte hartu duten mundu osoko atleten osoko kopurua erreferentziazat hartzen badugu.

CE.16. Adierazlea: Euskararen erabilera ingurune digitalean

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015-2016)	Adierazlearen balioa (2017-2019)	Bilakaera
Ingurune digitalean erabiltzen diren hizkuntzen kopuruaren gaineko euskararen ehunekoa	%	% 0,33	% 0,33	--

Iturria: Euskararen Aholku Batzordearen Batzorde Berezia + Unesco + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

UNESCOren arabera, mundu osoan **6.700 hizkuntza** hitz egiten dira, eta horietatik, erakunde honen datuen arabera, **Interneten 300 hizkuntzak** soilik dute presentzia. Euskadik munduko biztanleriaren % 0,03 hartzen du, **eta euskarak sarean erabiltzen diren hizkuntzen % 0,33 ordezkutzen du.**

Ez dago aldaketarik 2016. urtean definitutako adierazlearen balioan.

W3techs-en arabera, **euskara webguneen % 0,12an erabiltzen zen** 2019ko abenduan, **eta W3Techsen behatokiak –World Wide Web Technology Surveys**, 10 milioi webgunek baino gehiagok euren edukietan erabiltzen dituzten hizkuntzak aztertzen dituen **monitorizatzen dituen 186 hizkuntzen 51.** postuan dago.

CE.17. Adierazlea: Euskarako eta euskal kulturako katedra eta lektoretza sarea munduan

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015-2016 ikasturtea)	Adierazlearen balioa (2018-2019 ikasturtea)	Bilakaera
Euskarako eta euskal kulturako katedra + lektoretza kopurua munduan	Kopurua	41 ²	44	+3

Iturria: Etxepare + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2019-2020 ikasturtean, guztira **35 lektoretza daude 18 herrialdeetan** (Alemania, Argentina, Txile, Kuba, Espainia, Ameriketako Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Hungaria,

² Barne-oharra: 2016ko datu erreala, egiaztatua eta trazatua. Nazioartekotzearen Lehenengo Erradiografian, Excel orria batzean, lektoretzen kopuruan katedrak ere sartu ziren, eta, hortaz, Etxepare katedren kopurua bikoiztu egin zen; adierazlearen balio okerra 47 zen; adierazle erreala, berriz, 41 zen (35 lektoretza + 6 katedra).

Irlanda, Italia, Japonia, Mexiko, Polonia, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Errusia eta Uruguai) **eta bederatzi katedra lau herrialdetan** (5 Ameriketako Estatu Batuetan, 1 Alemanian, 1 Frantzia, 1 Erresuma Batuan eta 1 Argentina); horien bidez, **euskara eta euskal kulturako eskolak ematen dira nazioarteko** unibertsitateetan.

2015-2016 ikasturtearekin alderatuta, **gora egin dute bai katedra kopuruak** (seitik bederatzira pasatu da) eta bai euskarako lektorego edo katedraren bat duten **herrialdeen kopuruak** (hamabostetik hamazortzi herrialdera pasatu da, Kuba, Japonia eta Txekiar Errepublika gehitu ondoren).

3.2.4. IV. Dimentsioa: Turismoa

T.18. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-gastua munduko gainerakoarekin

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2014)	Adierazlearen balioa (2017*)	Bilakaera
Turismo hartzaileak eta turismo igorleak sortutako gastua	Miloi eurotan	6.136	7.220	+1.084

Iturria: Eustal + MKM Internazionalen berak prestatutako datuak

*Eskuragarri dagoen azken datua 2017. urtekoa da (2019ko urtarrilean argitaratu zen)

2017. urtean, **Euskadiko eta bertatik kanporako** turismo-jarduerak (euskal turistak kanpora irtetea eta munduko gainerako lekuetatik turistak Euskadira etortzea) **7.220 milioi Euroko gastua sortu zuen.**

Kanpoko turismo-jarduerak Euskadin eta Euskaditik sortutako gastua % 17,7 hazi da 2014 eta 2017 bitartean; turismoak nazioartean izandako hazkundera, berriz, % 2,6 izan da garai horretan, USDtan neurtuta, Munduko Bankuaren datuen arabera.

Batez besteko EUR/USD truke-tasa aplikatuz, Euskadiko turismo-gastua munduko nazioarteko turismoaren osoko kopuruaren % 0,5624 da.

T.19. Adierazlea: Turistak Euskadira etortzea

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
Euskadi bisitatu zuten turisten kopurua	Miloi pertsona	3,0	3,3	+0,3

Iturria: Eustat ("Euskal Autonomia Erkidegoko establezimendu turistiko hartzaileetan egondako sarrerren taula estatistikoa") + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

2018an, Euskadik **3,3 milioi turista** hartu zituen, hau da, **mundu osoko 1.400 milioi turisten % 0,23k Euskadi aukeratu zuten** helmuga gisa.

2015-2018 aldian, munduko turisten kopurua % 18,24 hazi da, eta Euskadikoa % 10.

T.20. Adierazlea: Euskal gastronomia, Michelin Izarrak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
Euskal jatetxeen Michelin Izarren kopurua	Michelin Izarren kopurua	29	31	+2

Iturria: 2018ko Michelin Gida

Euskal gastronomia oso aitortua da nazioartean eta eragile turistiko bat da Euskadirentzat. Sukaldaritzaren sektoreak sortzen dituen sinergieiei esker, interesgune nagusietako bat da bisitatzen gaituztenentzat.

2018ko Michelin Gidaren arabera, **22 euskal jatetxek 31 Michelin izar dituzte**.

Lau euskal jatetxek gida ospetsu horren **sari nagusia** dute (3 Michelin izar); beraz, 3 Michelin izar dituzten **EB28ko jatetxeen % 5,7 eta mundu osoko % 2,9** Euskadikoak dira.

Euskadi da **km²-ko Michelin izarren hirugarren kontzentrazio handiena duen lurraldea** (4,28 izar/mila km²), beraren aurrean Luxenburgo (4,64 izar/mila km²) eta Belgika (4,32 izar/mila km²) soilik baitaude.

2015. urtearekin alderatuta, 2018an **bi euskal jatetxe gehiagok** dute Michelin izar bat: bat Bizkaian eta beste bat Gipuzkoan.

Euskadi **bigarren postutik hirugarren postura pasatu da km²-ko Michelin izar gehien kontzentratzen dituzten herrialdeen artean** (haren aurretik Luxenburgo eta Belgika daude).

3.2.5. V. Dimentsioa: Garraioa

TR.21. Adierazlea: Pertsonen nazioarteko aireko garraioa Euskadin

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2014)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
-------------------------------------	-------------------	-----------------------------	-----------------------------	-----------

Nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako aireko garraioaren bidaiari kopura / Euskal aireportuetako aireko bidaiariak guztira	%	% 37,83	% 40,78	+% 2,95
---	---	---------	---------	---------

Iturria: Garraioaren Informazio Sistema – Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Saila

2018. urtean, euskal aireportuak erabili zituzten bidaiari guztien (5,9 milioi pertsona) **% 40,78k** (2,4 milioi pertsona) nazioarteko helmuga edo jatorria zuten.

Euskaditik irteten edo sartzen dira munduan airez garraiatzen diren bidaiari guztien % 0,14 eta nazioarteko helmuga duten EB28ko aire-bidaiarien % 0,19.

2014. urtearekin alderatuta, euskal aireportuetan nazioarteko helmuga edo jatorrietan zuten bidaiarien kopurua **% 49,69** hazi da; beraz, 2018. urtean, 2.014. urtean baino 769 mila pertsonak gehiagok erabili dituzte euskal aireportuak nazioarteko helmuga edo jatorriarekin. Euskal aireportuak erabili zituzten bidaiari guztien gaineko pisu erlatiboa % 2,95 igo da (2018an: % 40,78, 2014an: % 37,83).

Halaber, nazioarteko helmuga izanik **euskal aireportuetatik irteten diren eta/edo bertara heltzen diren EB28ko aire-bidaiarien kopurua ere** + % 0,01 hazi da; beraz, gure aireportuen merkatu-kuota eta posizionamendua apur bat hobetu dira Europako testuinguruan.

TR.22. Adierazlea: Salgaien nazioarteko itsas garraioa Euskadin

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2014)	Adierazlearen balioa (2018)*	Bilakaera
Euskadin esportazioetan itsasoz garraiatutako tonak + inportazioetan itsasoz garraiatutako tonak / Eskala globalean itsasoz garraiatutako tonak guztira	%	% 0,34	% 0,35	+% 0,1

Iturria: Estatuaren Portuak: Urtekari Estatistikoa + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

*Behin-behineko datuak

2018. urtean, **eskala globalean** itsasoz garraiatutako 11.005 milioi tonen **% 0,35** -38,83 milioi tona- eta **EB28ko** portuen bidez garraiatutako 4.046 milioi tonen **% 0,85** mobilizatu zuten **euskal portuek**.

2014. urtearekin alderatuta, euskal portuen merkatu-kuota apur bat hobetu da, bai munduko eskalan (+% 0,01) eta bai Europar eskalan: % 0,85 2018an eta % 0,83 2014an (+% 0,02).

3.2.6. VI. Dimentsioa: Zientzia eta Teknologia

CT.23. Adierazlea: PCT nazioarteko patenteen eskaerak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018*)	Bilakaera
PCT nazioarteko patenteen eskaerak / BPGaren mila milioi (EAP eurotan)	Patenteen eskaera kopurua / BPGaren mila milioi	1,48	2,56	+1,08

Iturria: Eustal + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

*Eskuragarri dagoen azken datua: EIS 2019, 2018ko datuei buruzkoa

2018. urtean, Berrikuntzako Adierazleen Panelak (IUS) adierazten duenez, **PCT** (Patent Cooperation Treaty) **nazioarteko patenteen** eskaera kopurua, BPGaren mila milioiko, **2,56** zen; hau da, **Eustaten metodologiaren arabera**, nazioarteko patenteen 182 eskaera gutxi gorabehera.

Urte berean, **PCT nazioarteko patenteen eskaeren** munduko kopurua 253.000 izan zen; beraz, **Euskadik**, munduko biztanleriaren % 0,03 duenez, **PCT** patenteen eskaeren **% 0,07** izan zuen, 2015ean (% 0,05) baino % 0,02 gehiago.

EB28n, BPGaren mila milioiko nazioarteko patenteen eskaera kopurua **3,53** zen 2018an, hau da, **Euskadikoa baino 0,97 puntu handiagoa**. Hala eta guztiz ere, 2015. urtearekin alderatuta, **Euskadiren** BPGaren mila milioiko **nazioarteko patenteen** eskaera kopuruak **gora egin du** 2015 eta 2018 bitartean (% 1,48tik % 2,56era pasatu da), eta EB28koa jaitsi egin da (% 3,78tik % 3,53era). Horren ondorioz, **Euskadik** ratio horri dagokionez EB28rekin duen **diferentzia (gap) % 1,33 jaitsi da**.

CT.24. Adierazlea: Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa / produktuen esportazio guztiak	%	% 51,90	% 52,92	+% 1,02

Iturria: Eustal + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak;

Europar Batasunak Berrikuntzako Adierazleen Panelean (Innovation Union Scoreboard, IUS) aplikatutako metodologiaren arabera, **Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioak** produktuen esportazio guztien **% 52,92** izan ziren 2018an.

Urte berean, **EB28ko** mota horretako produktuen esportazioak (erdi- eta goi-teknologiakoak) eremu horretako produktuen esportazio guztien **% 56,35** ziren; **eskala globalean**, berriz, erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioak munduko esportazioen **% 48** izan ziren.

Horrek Euskadiren posizionamendua berresten du eskala globalean, erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioen zein berrikuntza teknologiko industrialean nabarmentzen den eskualde gisa. Hala eta guztiz ere, 2015. eta 2018. urteen artean, **Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioek** produktu guztien esportazioetan duten pisu erlatiboa **% 1,02 igo da**; munduan eta EB28n, berriz, igoerak **% 3,96** eta **% 3,35** izan dira, hurrenez hurren.

2018. urtean, Euskadi EB28ko hogeita zortzi herrialdeen 13. postuan dago (29 herrialde, Espainia kontuan hartuz gero); 2015ean, berriz, 10. postuan zegoen.

3.2.7. VII. Dimentsioa: Hezkuntza

ED.25. Adierazlea: Erasmus programaren onuradun diren unibertsitate-irakaskuntzetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015-2016 ikasturte akademikoa)	Adierazlearen balioa (2018-2019 ikasturte akademikoa)	Bilakaera
Erasmus programaren esparruan nazioarteko unibertsitateetara ikastera joaten diren euskal ikasleen kopurua / "Erasmus" nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua	%	% 0,34 ³	% 0,40	+% 0,06

Iturria: Hezkuntza Saila

2018-2019 ikasturtean, **unibertsitateko 1370 euskal ikasle** atzerrira joan ziren Erasmus bekekin ikastera. Beraz, unibertsitate-trukeko **programa horretan parte hartzen zuten europar ikasleen % 0,40 euskaldunak ziren.**

³ Barne-oharra: 2016. urteko datu erreala, egiztatua eta eguneratua. Erasmus programan parte hartzen zuten euskal unibertsitate-ikasleen inguruan lehenengo Nazioartekotzearen Erradiografian erabilitako datua behin-behineko datu bat zen, finkatu gabekoa.

ERASMUS programaz gain **unibertsitate-ikasleen mugikortasuna atzerrian** sustatzen duten beste programa batzuk ere erreferentziatzen hartuta –hala nola, euskal unibertsitateetako aldeko akordioak eta programak-, ikus daiteke 2018/2019 ikasturtean **2.129 euskal ikasle** joan zirela atzerrira euren unibertsitate-programak egitera edo osatzera.

Eskala globalean, UNESCOren arabera, 5,5 milioi unibertsitate-ikasle inguruk ikasten dute atzerrian.

UNESCOK emandako datu hori kontuan hartuta, **ikasketak atzerrian egin eta/edo osatzen dituzten unibertsitate-ikasleen % 0,04 euskaldunak dira**; hori datu positiboa da, kontuan hartuta Euskadik **munduko biztanleriaren % 0,03** hartzen duela.

3.2.8. VIII. Dimentsioa: Ingurumena

M.26. Adierazlea: Munduko Beroteqi-efektuko gasen isurien euskal kuota, CO₂aren tona baliokidetan neurtuta

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2013)	Adierazlearen balioa (2017*)	Bilakaera
Euskadin isuritako CO ₂ tona baliokideak / Mundu-mailan isuritako CO ₂ tona baliokideak	%	% 0,05	% 0,04	-% 0,01

Iturria: Eustal + MKM Internazionalen berak prestatutako datuak

*Eskuragarri dagoen azken data (2019ko uztailaren 23an argitaratu zen)

Euskal Autonomia Erkidegoak, munduko BPGaren % 0,11 hartzen duela, **2017. urtean** 20.047 CO₂ Kilotona baliokide **isuri zituen**, hau da, **munduko ekonomian** guztira **sortutako CO₂ Kilotona baliokideen % 0,04**.

2013. urtearekin alderatuta, **Euskal Autonomia Erkidegoak munduko ekonomian** guztira **sortutako CO₂ Kilotona baliokideetan** duen pisu erlatiboa apur bat jaitsi da (**-% 0,01**).

EB28ri dagokionez, 2017. urtean Euskadik **EB28n** guztira isuritako CO₂ Kilotona baliokideen **% 0,46** sortu zituen, hau da, EB28ko BPGari egiten dion ekarpena baino gutxiago, berau % 0,48 baita.

M.27. Adierazlea: Euskal Ingurumen Ondarearen Nazioartekotzea

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)	Adierazlearen balioa (2018)	Bilakaera
UNESCOK Euskadin deklaraturako "Biosfera Erreserbak" / Mundu-mailan deklaraturako "Biosfera Erreserba" guztiak	%	% 0,1495	% 0,1457	-% 0,0038

Iturria: UNESCO + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

Euskadik, munduko azaleraren % 0,01 eta EB28ko azaleraren % 0,07 hartzen duela, UNESCOK "Biosfera Erreserba" deklaraturako munduko naturaguneen % 0,1457 (686tik bat, "Urdaibai") eta EB28ko naturaguneen % 0,57 (176tik bat) biltzen ditu.

2017 eta 2018 bitartean, **UNESCOK berrogeita hiru naturagune** deklaratu ditu "**Biosfera Erreserba**", eta hogeita sei naturagunek galdu dute bereizgarri hori. **Euskadik bere pisu erlatiboari** eutsi dio bai EB28 mailan eta bai mundu mailan.

3.2.9. IX. Dimentsioa: Gizartea
S.28. Adierazlea: Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle atzerritarrak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015)	Adierazlearen balioa (2019-1-1)	Bilakaera
Biztanle atzerritarrak / Euskadiko biztanle guztiak	%	% 6,32	% 7,62	+% 1,3

Iturria: Eustal + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

2019ko urtarrilaren batean, Euskadiko **biztanle atzerritarrak** 166.695 ziren, hau da, biztanle guztien **% 7,62**: Euskadin, 13 pertsonatik bat atzerritarra da.

Euskadin bizi diren atzerritarrak, **mundu mailan, bizi direnaz bestelako herrialde batean jaioetako pertsonen** (272 milioi pertsona) **% 0,06** dira.

Euskadik mantentzen du, **mundu mailan**, Euskadin bizi baina beste herrialde batean jaioak diren pertsonen kopuruan duen **pisua** (% 0,06).

S.29. Adierazlea: Euskal instituzio eta erakundeek finantzatutako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntza

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2015) ⁽¹⁾	Adierazlearen balioa (2018) ⁽¹⁾	Bilakaera
Euskal instituzio eta erakundeek finantzatutako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntzaren zenbatekoa	Miloi eurotan	55	69,5	+14,5

Iturria: Munduko Bankua + Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

2018. urtean, garapenerako lankidetzaren euskal erakunde publikoek **585 ekimen berri** bultzatu zituzten **57 herrialdetan**, guztira **69,5 milioi euro** baino gehiago bideratuta; zenbateko hori **mundu** mailan jasotako **Laguntza Ofizial Garbiaren % 0,05** da.

Hau da, 2018an euskal herritar bakoitzak 31,76 euroko ekarpena egin zuen Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako proiektuetarako, hots, 2015ean baino 6,45 euro gehiago biztanleko.

S.30. Adierazlea: Euskal gizartearen pentsamolde globala

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa (2016)*	Adierazlearen balioa (2019)**	Bilakaera
Inkesta batean oinarrituta landutako pertzepzio-adierazlea	Maila globalean izandako gertaerek beren bizitzan eragina dutela (handia edo handi samarra) adierazten duten euskal herritarren %	% 67,84 eta % 74,16 bitarteko tartea	% 66,35 eta % 73,65 bitarteko tartea	--

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza)

*2016: 2016ko otsailan egindako inkesta. Lagina: 1.000 elkarrizketa EAE osoko 18 urteko edo gehiagoko herritarrei. Lagin-errorea: + % 3,16, % 95,5eko konfiantza mailarako, p=q=0,5 izanik.

**2019: 2019ko azaroan egindako inkesta. Lagina: 750 elkarrizketa EAE osoko 18 urteko ego gehiagoko herritarrei. Lagin-errorea: + % 3,65, % 95,5eko konfiantza mailarako, p=q=0,5 izanik.

Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza) "Euskal gizartearen pentsamolde globalari" buruz 2019ko azaroan egin zuen inkestatik ondorioztatzen denez, **euskal herritarren % 66,35 eta % 73,65 bitartek hautematen dute munduan izandako gertaerek beren bizitzan eragina dutela (handia edo handi samarra)**. Adierazle horren balioa 2016an eta 2019an neurtzeko erabilitako laginen tamaina desberdina denez, errore-marjina handiagoa da 2019. urteko

inkestan: zenbat eta biztanle gutxiago, orduan eta errore-marjina handiagoa. Horregatik, bilakaera ikusi ahal izateko, batez besteko aritmetikoaren ordeztarte bat erabiltzen da adierazle gisa, zeren bi laginak ez baitira alderagarriak.

Horrenbestez, datu hauek zuhurtziaz interpretatu behar dira. Berretsi daiteke euskal gizartearen bi herenek esaten dutela maila globalean izandako gertaerek euren bizitzan eragina dutela (handia edo handi samarra); beraz, 2019. urtean lortutako ehunekoen tartea 2016. urtekoaren ia berdina da, eta agerian uzten du **euskal gizartearen gehiengoak baduela sentikortasuna munduko arazo eta gertaerak ezagutzeko eta horien inguruan modu kritikoan hausnartzeko.**

S.31. Adierazlea: Giza Garapenaren Indizea (GGI)

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa 2014an	Adierazlearen balioa 2018an	Bilakaera
Giza garapenaren funtsezko dimentsioetan erdietsitako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa	Adierazlearen balioa (0 eta 1 bitarteko eskala)	0,915	0,926	+0,011

Iturria: Eustal + MKM Internazionalen berak prestatutako datuak

Euskal Autonomia Erkidegoko Giza Garapenaren Indizeak (GGI) planetako garatueneren artean kokatzen du euskal gizartea, Eustatek prestatutako datuen arabera. Horretarako, Nazio Batuen Garapenerako programa estatistiko horren metodologia aplikatu du urtero, 2010az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko GGIA kalkulatzeko. (metodologia aldiari behin aldatzen da.)

Giza Garapenaren Indizea (GGI) giza garapenaren funtsezko dimentsioetan erdietsitako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa da: osasuna, hezkuntza eta bizi-maila. GGIA hiru dimentsio horietako bakoitzaren indize normalizatuen batez besteko geometrikoa da.

- Osasunaren dimentsioa jaiotzako bizi-itxaropenaren adierazlearen arabera ebaluatzen da.
- Hezkuntzaren dimentsioa 25 urteko edo gehiagoko helduen batez besteko eskolatzurtearen arabera neurtzen da, eta baita eskola-adinean dauden haurrentzat espero diren urtearen arabera ere.
- Bizi-mailaren dimentsioa per capita errenta nazional gordinaren⁴ arabera neurtzen da, erosteko ahalmen parekidearen terminoetan (EAP).

NBGPk 2018ari buruzko datuekin argitaratutako azken txostenak mundu mailako sailkapen-ranking bat ezartzen du **189 estatu burujaberen artean. 2018. urtean, Euskal**

⁴ Errenta nazional gordina (merkatuko prezioetan) honako hau da: BPGa ken erakunde-unitate egoiliarrek egoiliarrek ez diren erakunde-unitateei ordaindu beharreko errenta primarioak gehi erakunde-unitate egoiliarrek kobratu behar dituzten gainerako guztien errenta primarioak (Eustat).

Autonomia Erkidegoaren adierazlearen balioa 0,926 zen, eta, hortaz, planetako garatuenean artean kokatzen da, honako hauen atzetik: Norvegia, Suitza, Irlanda, Alemania, Hong Kong, Australia, Islandia, Suedia, Singapur, Herbehereak eta Danimarka.

2014an, adierazlearen balioa **0,915** izanik, **Euskadik munduko zortzigarren postua konpartitu zuen** Ameriketako Estatu Batuekin, honako hauen atzetik geratuz: Norvegia, Australia, Suitza, Danimarka, Herbehereak, Alemania eta Irlanda.

3.3. Euskadiren Presentzia Globaleko Adierazleen Mapak Lehenengo eta Bigarren Erradiografiaren artean izandako Bilakaeraren Laburpena

Euskadiren Nazioartekotzearen bi Erradiografiatan aztertutako **presentzia globaleko 27 adierazleetatik, 22 adierazlek⁵ bilakaera positiboa** izan dute, **bi adierazlek** balio berdinari eutsi diote eta **hiru adierazlek bilakaera negatiboa** erakusten dute, nahiz eta kasu guztietan aldaketa **-% 0,03tik** beherakoa den, hau da, ia hautemanezina.

- CE.13. Munduko euskal ondarea: UNESCOk “Munduko Ondare” deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu mailan deklaraturako elementuak guztira: **-% 0,03**
 - Adierazle honek erakusten duen aldaketa ez da batere esanguratsua, eta logikoa da joera horrek datozen urteetan jarraitzea, UNESCOk munduko ondarearen elementuen kopurua handitzen duen neurrian.
- CE.14. Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa: Euskadiko kultura-industriaren esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa: **-% 0,0058**
 - Nahiz eta Euskadiko kultura-industriaren esportazioak % 11,7 igo diren 2015 eta 2018 bitartean, adierazle horren bilakaera apur bat beheranzkoa da. Adierazlea bi digitutan uzten bada, balioa ez da aldatzen 2016tik 2019ra.
- M.27. Euskal Ingurumen Ondarearen Nazioartekotzea: UNESCOk Euskadin deklaraturako “Biosfera Erreserbak” / Mundu-mailan deklaraturako “Biosfera Erreserba” guztiak: **-% 0,0038**
 - CE.13. adierazlearen kasuan bezala gertatzen da, zeren “Biosfera Erreserben” kopurua mundu mailan handitu baita.

DIMENTSIOA	ZK.	ADIERAZLEA:	ADIERAZLEAREN OSAGIAIK ETA KALKULUA	NEURKETA-UNITATEA	EUSKADI REN BALIOA 1. Erradiografia	EUSKADI REN BALIOA 2. Erradiografia	BILAKAERA
I. INSTITUZIONALA	I.5	Euskal Autonomia Erkidegoaren Ordezkaritza Kontsularra	Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu kopurua	Kontsulatu kopurua	43	50	+7
	I.6	Eusko Jaurlaritzaren Presentzia Instituzionala munduan	Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkariak kopurua + BTI bulego kopurua + Kanpoko aholkulariaren kopurua	Kopurua	75	82	+7
	I.7.a	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioak	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioaren kopurua	Akordio kopurua	453	471	+18

⁵ M26. Adierazlea barne sartuta. Izan ere, balio negatiboa izan arren bilakaera positiboa dakar berekin, zeren adierazten baitu Euskadiko isuriek pisu txikiagoa dutela munduko guztizko isurietan; hala, 2013an munduko isuri guztien % 0,04 izatetik 2017an % 0,04 izatera pasatu da (eskuragarri dagoen azken datua).

DIMENTSIOA	ZK.	ADIERAZLEA:	ADIERAZLEAREN OSAGIAIK ETA KALKULUA	NEURKETA-UNITATEA	EUSKADI REN BALIOA 1. Erradiografia	EUSKADI REN BALIOA 2. Erradiografia	BILAKAERA
	I.7.b	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareak	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareen kopurua	Sare kopurua	75	122	+47
	I.8	Munduko Euskal Etxeen sarea	Munduko Euskal Etxeen kopurua	Euskal Etxeen kopurua	190	193	+3
II. EKONOMIA ETA INDUSTRIA	E.9	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak esportatzeko joera	Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPG	%	% 31,95	% 33,18	+% 1,23
	E.10	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek munduko ondasunen esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko ondasunen esportazioak / Munduko ondasunen esportazioak	%	% 0,1492	% 0,1556	+% 0,0064
	E.11	Euskadin egindako AZIaren balioa	Euskadin aldi jakin batean egindako AZIaren stockaren balioa	Miloi eurotan	3.385,79	10.962,17	+7.576,38
	E.12	Euskal enpresen kanpoko ezarpenak	Euskal enpresen kanpoko ezarpenen kopurua	Kopurua	1.688	1867	+179
III. KULTURA ETA EUSKARA	CE.13	Munduko euskal ondarea	UNESCOk "Munduko Ondare" deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu mailan deklaraturako elementuak guztira	%	% 0,3	% 0,27	-0,03%
	CE.14	Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko kultura-industriren esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 0,1532	% 0,1474	-% 0,0058
	CE.15	Euskal kirolari olimpikoak	Udako Olinpiar Jokoen azken 4 edizioetan parte hartu duten euskaldunak	Pertsona kopurua	101	122	+21
	CE.16	Euskararen erabilera ingurune digitalean	Ingurune digitalean erabiltzen diren hizkuntzen kopuruaren gaineko euskararen ehunekoa	%	% 0,33	% 0,33	--
	CE.17	Euskarako eta euskal kulturako katedra eta lektoretza sarea munduan	Euskarako eta euskal kulturako katedra + lektoretza kopurua munduan	Kopurua	41	44	+3
IV. TURISMOA	T.18	Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-gastua munduko gainerakoarekin	Turismo hartzaileak eta turismo igorleak sortutako gastua	Miloi eurotan	6.136	7.220	+1.084
	T.19	Turistak Euskadira etortzea	Euskadi bisitatu zuten turistaren kopurua	Miloi pertsona	3	3,3	+0,3
	T.20	Euskal gastronomia, Michelin Izarrak	Euskal jatetxeen Michelin izarren kopurua	Michelin Izarren kopurua	29	31	+2
V. GARRAIOA	TR.21	Pertsonen nazioarteko aireko garraioa Euskadin	Nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako aireko garraioaren bidaiari kopurua / Euskal aireportuetako aireko bidaiariak guztira	%	% 37,83	% 40,78	+% 2,95
	TR.22	Salgaien nazioarteko itsas garraioa Euskadin	Euskadin esportazioetan itsasoz garraiatutako tonak + inportazioetan itsasoz garraiatutako tonak / Eskala globalean itsasoz garraiatutako tonak guztira	%	% 0,34	% 0,35	+% 0,1
VI. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	CT.23	PCT nazioarteko patenteen eskaerak	PCT nazioarteko patenteen eskaerak / BPGaren mila milioi (EAP eurotan)	Patenteen eskaera kopurua / BPGaren mila milioi	1,48	2,56	+1,08
	CT.24	Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa	Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa / produktuen esportazioak guztiak	%	% 51,90	% 52,92	+% 1,02

DIMENTSIOA	ZK.	ADIERAZLEA:	ADIERAZLEAREN OSAGIAIK ETA KALKULUA	NEURKETA-UNITATEA	EUSKADI REN BALIOA 1. Erradiografia	EUSKADI REN BALIOA 2. Erradiografia	BILAKAERA
VII. HEZKUNTZA	ED.25	Erasmus programaren onuradun diren unibertsitate-irakaskuntzetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus programaren esparruan nazioarteko unibertsitateetara ikastera joaten diren euskal ikasleen kopurua (unibertsitatekoak eta Lanbide Heziketakoak) / "Erasmus" nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua	%	% 0,34	% 0,40	+% 0,06
VIII. INGURUMENA	M.26	Munduko CO2-aren isuriaren euskal kuota	Euskadin isuritako CO2 tona baliokideak / Mundu-mailan isuritako CO2 tona baliokideak	%	% 0,05	% 0,04	-% 0,01
	M.27	Euskal Ingurumen Ondarearen Nazioartekotzea	UNESCOk Euskadin deklaraturako "Biosfera Erreserbak" / Mundu-mailan deklaraturako "Biosfera Erreserba" guztiak	%	% 0,1495	% 0,1457	-% 0,0038
IX. GIZARTEA	S.28	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle atzeritarrak	Biztanle atzeritarrak / Euskadiko biztanle guztiak	%	% 6,32	% 7,62	+% 1,3
	S.29	Euskal instituzio eta erakundeek finantzaturako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideraturako laguntza	Euskal instituzio eta erakundeek finantzaturako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideraturako laguntzaren zenbatekoa	Miloi eurotan	55	69,5	+14,5
	S.30	Euskal gizartearen pentsamolde globala	Inkesta batean oinarrituta landutako pertzepzio-adierazlea	Maila globalean izandako gertaerek beren bizitzan eragina dutela (handia edo handi samarra) adierazten duten euskal herritarren %	% 67,84 eta % 74,16 bitarteko tartea	66,35% eta 73,65% bitarteko tartea	--
	S.31	Giza Garapeneraren Indizea (GGI)	Giza garapeneraren funtsezko dimentsioetan erdietsitako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa: jaiotzako bizi-itxaropena, hezkuntza eta bizi-maila	Indizearen balioa (0 eta 1 bitartean)	0,915	0,926	+0,011

Adierazle Berriak

Proposatzen da **Euskadiren Nazioartekotzearen Erradiografian zazpi adierazle berri** txertatzea.

Bost adierazle oso modu egokian txertatu daitezke jadanik definituta dauden bost dimentsioen esparruan; beste bietarako, berriz, dimentsio berri bat sortzea proposatzen da, gobernuari, ekonomiari eta gizarte digitalari buruzko adierazleak jasotzeko.

DIMENTSIOA	KOPURUA	ADIERAZLEA
II. EKONOMIA ETA INDUSTRIA	2	NEKAZARITZA <ul style="list-style-type: none"> Jatorri-deitura Babestuak ZORRA: <ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzak inbertitzaile atzerritarrentzat jaulkitako Euskadiko Bonu Jasangarrien erakargarritasuna haien jaulkitze-egunean
VII. HEZKUNTZA	1	LANBIDE HEZIKETA: <ul style="list-style-type: none"> Erasmus programaren onuradun diren lanbide heziketako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna
VIII. ENERGIA ETA INGURUMENA	1	ENERGIA: <ul style="list-style-type: none"> Euskadiko produktu energetikoen esportazioek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa
IX. GIZARTEA	1	BERDINTASUNA: <ul style="list-style-type: none"> Eusko Legebiltzarrean dauden Emakumeen Kopurua
X. GOBERNUA, EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALA	2	GOBERNUA: <ul style="list-style-type: none"> Gobernu Kalitatearen Europako Indizea EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALA: <ul style="list-style-type: none"> Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (DESI)

Definitutako adierazle berriak

E.32. Adierazlea: Jatorri-deitura Babestuak

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
Europar Batasunean erregistratutako "Jatorri-deitura Babestuak"	JDBen Kopurua	4	2019

Iturria: eAmbrosia datu-basea + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2019ko apirilean, Europar Batasunak “eAmbrosia” izeneko datu-base publiko bat abiatu zuen, nekazaritzako elikagaien sektoreko jatorri-deitura babestuen eta deitura geografikoen beste kategoria batzuen datu-baseak homogeneizatzeko eta eguneratzeko.

Datu-baseak **38 herrialdek** eta/edo eremu geografikok Europar Batasunean **erregistratutako 1964 Jatorri-deitura Babestu** biltzen ditu. **Euskadik 4 JDB ditu erregistratuta**, hau da, **erregistratutako JDB guztien % 0,02**.

E.33. Adierazlea: Eusko Jaurlaritzak inbertitzaile atzerritarrentzat jaulkitako Euskadiko Bonu Jasangarrien erakargarritasuna haien jaulkitze-egunean

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
Bono jasangarriak (jaulkipenen stocka) haien jaulkitze-egunean erosten dituzten inbertitzaile atzerritarrak	Herrialde kopurua	13	2018-2019*

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila + MKM Internazionalak berak prestatutako datuak

*Jaulkipenak 2018ko apirilean eta 2019ko apirilean izan ziren

2018-2019an, Eusko Jaurlaritzak Euskadi Bono Jasangarrien bi jaulkipen egin ditu, guztira **1.100 milioi euroko** balioaz, **gizarte izaerako** (% 83) eta **ingurumen izaerako** (% 17) proiektuetarako, Garapen Jasangarriaren Helburuen 2030erako Agendari lotuta.

Eskaria eskaintza baino lau aldiz handiagoa izan da, eta haien jaulkipenaren bi heren **13 herrialdetako** nazioarteko inbertitzaileek harpidetu dituzte jaulkitze-egunean; horrek garbi erakusten ditu Euskal Ekonomiaren **nazioarteko erakargarritasuna eta konfiantza**.

ED.34. Adierazlea: Erasmus programaren onuradun diren lanbide heziketako euskal ikasleen eta irakasleen nazioarteko mugikortasuna

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
-------------------------------------	-------------------	----------------------	--------------------------

Erasmus LH programaren esparruan nazioarteko zentroetara ikastera joaten diren lanbide heziketako ikasle eta irakasleen kopurua / "Erasmus" nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren LHko ikasle eta irakasleen osoko kopurua	%	% 0,08	2019-2020 ikasturtea
--	---	---------------	----------------------

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila + Europako Batzordea + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

2019-2020 ikasturtean, **lanbide heziketako 1454 euskal ikasle eta 291 irakasle (1745)** atzerrira joan ziren Erasmus+ Programaren bidez.

Erasmus+ programako lanbide heziketaren atalean ("KA1 Vocational Education and Training") 2019-2020 ikasturtean parte hartu duten ikasle eta irakasleei buruz gaur egun eskura dagoen informazioaren arabera (behin-behineko datuak), trukeen **programa horretan parte hartzen duten lanbide heziketako europar ikasleen % 0,84 euskal herritarrik dira**; ehuneko hori gure biztanleriak EB28an duen pisua (% 0,43) baino askoz ere handiagoa da.

M.35. Adierazlea. Euskadiko produktu energetikoen guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
Euskadiko produktu energetikoen* esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 10,86	2018

Iturria: Estatuko Merkataritza Idazkaritza + EU Trade Helpdesk + ITC (International Trade Centre) + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

*Produktu energetikoa = TARIC (Erkidegoko muga-zerga integratua) muga-zergaren 27. saila soilik hartzen du barne (Erkidegoko muga-zerga integratua)

Euskal produktu energetikoen esportazioak (muga-zergen 27. saila) **euskal esportazio guztien % 10,86** izan dira 2018. urtean, **munduko produktu energetikoen esportazio guztien % 0,13**.

EB28ri dagokionez, **euskal produktu energetikoen esportazioak** EB28ko **produktu energetiko guztien % 0,85 izan dira** -gure BPGaren pisua, uneko prezioetan, % 0,48 da-.

S.36. Adierazlea: Eusko Legebiltzarrean dauden Emakumeen Kopurua

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
Emakumeek parlamentu nazionaletan okupatzen dituzten jarlekuen proportzioa (%)	%	% 53,3	2018

Iturria: legebiltzarra.eus + Munduko Bankua + MKM Internacionalek bera prestatutako datuak

2016. urteaz geroztik, Eusko Legebiltzarrean dauden emakumeen kopurua gizonena baino handiagoa da: **% 53,3**. Parte-hartze hori **mundukoaren eta EB28koaren batez bestekoa** baino askoz ere handiagoa da, horien proportzioak **% 23,9 eta % 30,5** baitira, hurrenez hurren.

Euskadi Munduko Bankuak ebaluatutako 199 herrialdeen rankingaren **bigarren postuan** dago. Beraren aurretik Ruanda bakarrik dago, bertako parlamentu-kideen % 61,3 emakumeak baitira.

EB28 mailan, euren parlamentuetan emakumeen parte-hartze handiena duten herrialdeak Suedia eta Finlandia dira: % 46,1 eta % 42, hurrenez hurren.

G.37. Adierazlea: Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (DESI)⁶

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
Euskadiko digitalizazio maila DESI* indizearen arabera (100aren gainera)	%	% 62,99	2018

Iturria: Europako Batzordea + Orkestra + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

Metodologia dinamiko batez nazioartean -baina ez mundu mailan- lantzen den adierazle horren arabera, **euskal gizarte eta ekonomiaren digitalizazioa EB28ko bosgarren postuan** dago, zeren haren balioa **% 62,99** izan baitzen **2018**. urtean. Balio hori **EB28koaren** batez bestekoa baino nabarmen handiagoa da, berau **% 53,98** izan baitzen.

Mundu mailan, DESI metodologiaren arabera ebaluatutako EB28tik kanpoko **hamazazpi herrialdeen** (Australia, Brasil, Kanada, Txile, Txina, Hego Korea, Ameriketako Estatu Batuak, Islandia, Israel, Japonia, Mexiko, Norvegia, Zeelanda Berria, Errusia, Serbia, Suitza,

⁶ DESI: DESI edo Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (Digital Economy and Society Index) lurralde jakin baten digitalizazio maila neurtzea ahalbidetzen duen indize bat da. 34 adierazle ditu, 5 dimentsiotan sailkatuta: konektibitatea, giza kapitala, Interneteko zerbitzuen erabilera, **teknologiaren integrazioa eta zerbitzu publiko digitalak**. Dimentsioen eta adierazleen artean badago beste maila bat, hots, azpidimentsioen maila. Adierazlearen balio absolututik abiatuta, azkeneko DESI adierazlea lortzea ahalbidetzen duten normalizazio-prozesu eta haztapen batzuk gauzatzen dira.

Turkia) batez bestekoa **% 54,8** da, EB28ko digitalizazio maila baino handiagoa baina Euskadikoa baino % 8,19 txikiagoa.

G.38. Adierazlea: Gobernu Kalitatearen Europako Indizea ("EQI")

Adierazlearen osagaiak eta kalkulua	Neurketa-unitatea	Adierazlearen balioa	Behatutako Urtea / Aldia
Gobernu Kalitatearen Europako Indizea	Indizea	0,6520	2017

Iturria: OoG EQI Data + MKM Internacionalek berak prestatutako datuak

Gobernu Kalitatearen Europako Indizea (EQI) da **kalitate instituzionalari** buruz Europar Batasunean eskualde mailan dagoen adierazle bakarra, kontuan hartuta kalitate instituzionala dimentsio anitzeko kontzeptu bat dela, alegia: zerbitzu publikoak inpartzialtasun eta kalitate handiz ematea eta ustelkeria maila txikia izatea. EQIren helburua da herritar arruntek ustelkeriaren inguruan dituzten pertzepzioak eta esperientziak ezagutzea, eta jakitea noraino kontsideratzen duten euren eskualdeko zerbitzu publikoak inpartzialak eta kalitate onekoak direla.

2017ari buruzko datuekin argitaratutako azken txostenak Europa mailako sailkapen-ranking bat ezartzen du **193 eskualderen artean. Euskadiren kasuan, adierazlearen balioa 0,6520 izan zen 2017. urtean**, eta, hortaz, rankingaren 66. postuan dago.

4. EUSKADIREN PRESENTZIA GLOBALEKO ADIERAZLEEN 2019KO MAPAREN LABURPENA

DIMENTSIOA	ZK.	ADIERAZLEA	ADIERAZLEAREN OSAGAIK ETA KALKULUA	NEURKETA-UNITATEA	EUSKADI REN BALIOA ² Erradiografia	MUNDUKO KONPARAZIOA
I. INSTITUZIONALA	I.5	Euskal Autonomia Erkidegoaren Ordezkaritza Kontsularra	Euskal Autonomia Erkidegoko kontsulatu kopurua	Kontsulatu kopurua	50	Munduko biztanleriaren % 19,34 eta munduko Produktu Gordinaren % 30
	I.6	Eusko Jaurlaritzaren Presentzia Instituzionala munduan	Eusko Jaurlaritzaren kanpoko ordezkaritza kopurua + BTI bulego kopurua + Kanpoko aholkulariarekiko lankidetzakordio egonkorren kopurua	ZKIA.	82	Presentzia munduko Produktu Gordinaren % 89,43 biltzen duten 82 herrialdetan.
	I.7.a	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioak	Eusko Jaurlaritzak sinatutako nazioarteko akordioen kopurua	Akordio kopurua	471	Munduko BPGaren % 84,58 ordezkatzen duten 56 herrialderekin sinatutako aldeko akordioak
	I.7.b	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareak	Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea duten Nazioarteko Sareen kopurua	Sare kopurua	122	79 sarek Europako irispidea dute eta 43 sarek irispide globala
	I.8	Munduko Euskal Etxeen sarea	Munduko Euskal Etxeen kopurua	Euskal Etxeen kopurua	193	Mundu mailan ezin konparatu daitekeen adierazlea
II. EKONOMIA ETA INDUSTRIA	E.9	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak esportatzeko joera	Ondasunen esportazioak / Euskadiko BPG	%	% 33,18	Munduko batez bestekoa baino % 10,6 gehiago
	E.10	Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunen esportazioek munduko ondasunen esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko ondasunen esportazioak / Munduko ondasunen esportazioak	%	% 0,1556	Esportazio-jardueraren bitartez munduan sortutako 643 eurotik bat Euskadin sortua zen
	E.11	Euskadin egindako AZIaren balioa	Euskadin aldi jakin batean egindako AZIaren stockaren balioa	Miloi eurotan	10.962,17	Munduko guztizko IEDaren % 0,21
	E.12	Euskal enpresen kanpoko ezarpenak	Euskal enpresen kanpoko ezarpenen kopurua	Kopurua	1867	Presentzia munduko Produktu Gordinaren % 93,06 biltzen duten 92 herrialdetan
	E.32	Jatorri-deitura Babestuak	Europar Batasunean erregistratutako "Jatorri-deitura Babestuak"	JDB Kopurua	4	EBko 38 herrialdetan erregistratutako JDB guztien % 020
	E.33	Eusko Jaurlaritzak inbertitzaile atzerritarrentzat jaulkitako Euskadiko Bonu Jasangarrien erakargarritasuna haien jaulkitze-egunean	Bono jasangarriak (jaulkipenen stocka) erosten dituzten inbertitzaile atzerritarrak	Herrialde kopurua	13	13 herrialdetako inbertitzaile atzerritarrak
III. KULTURA ETA EUSKARA	CE.13	Munduko euskal ondarea	UNESCOK "Munduko Ondare" deklaraturako euskal elementuen kopurua / Mundu mailan deklaraturako elementuak guztira	%	% 0,27	Euskadi UNESCOK "Munduko Ondarea" kategorian deklaraturako 1121 elementuetako hiru ditu
	CE.14	Euskadiko kultura-industriek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko kultura-industrien esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 0,1474	Kultura-industrien ondasunen munduko esportazio guztien % 0,08
	CE.15	Euskal kirolari olinpikoak	Udako Olinpiar Jokoen azken 4 edizioetan parte hartu duten euskaldunak	Pertsona kopurua	122	Udako Olinpiar Jokoetako azken lau edizioetan parte hartu duten atleten % 0,22
	CE.16	Euskararen erabilera ingurune digitalean	Ingurune digitalean erabiltzen diren hizkuntzen kopuruaren gaineko euskararen ehunekoa	%	% 0,33	Munduan hitz egiten diren 6.700 hizkuntzetatik, Interneten 300 hizkuntzak soilik dute presentzia.

DIMENTSIOA	ZK.	ADIERAZLEA	ADIERAZLEAREN OSAGAIK ETA KALKULUA	NEURKETA-UNITATEA	EUSKADI REN BALIOA 2. Erradiografia	MUNDUKO KONPARAZIOA
	CE.17	Euskarako eta euskal kulturako katedra eta lektoretza sarea munduan	Euskarako eta euskal kulturako katedra + lektoretza kopurua munduan	Kopurua	44	Mundu mailan ezin konparatu daitekeen adierazlea
IV. TURISMOA	T.18	Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-gastua munduko gainerakoarekin	Turismo hartzaileak eta turismo igoerleak sortutako gastua	Miloi eurotan	7.220	Nazioarteko turismoaren munduko gastuaren % 0,56
	T.19	Turistak Euskadira etortzea	Euskadi bisitatu zuten turisten kopurua	Miloi pertsona	3,3	Mundu osoko turisten % 0,23
	T.20	Euskal gastronomia, Michelin Izarrak	Euskal jatetxeen Michelin izarren kopurua	Michelin Izarren kopurua	31	Michelin izarren hirugarren kontzentrazio handiena km2-ko
V. GARRAIOA	TR.21	Pertsonen nazioarteko aireko garraioa Euskadin	Nazioarteko helmuga edo jatorria duten euskal aireportuetako aireko garraioaren bidaiari kopura / Euskal aireportuetako aireko bidaiariak guztira	%	% 40,78	Airetik mundu osoan garraiatutako bidaiari guztien % 0,14
	TR.22	Salgaien nazioarteko itsas garraioa Euskadin	Euskadin esportazioetan itsasoz garraiatutako tonak + inportazioetan itsasoz garraiatutako tonak / Eskala globalean itsasoz garraiatutako tonak guztira	%	% 0,35	Eskala globalean itsasoz garraiatutako salgaien % 0,35
VI. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA	CT.23	PCT nazioarteko patenteen eskaerak	PCT nazioarteko patenteen eskaerak / BPGaren mila milioi (EAP eurotan)	Patenteen eskaera kopurua / BPGaren mila milioi	2,56	Kategoria honetan munduan eskatutako patenteen % 0,07
	CT.24	Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa	Euskadiko erdi- eta goi-teknologiako produktuen esportazioa / produktuen esportazioak guztiak	%	% 52,92	Eskala globalean, mota honetako produktuak munduko esportazioen % 48 dira
VII. HEZKUNTZA	ED.25	Erasmus programaren onuradun diren unibertsitate-irakaskuntzetako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus programaren esparruan atzerriara ikastera joaten diren euskal ikasleen kopurua (unibertsitatekoak) / "Erasmus" nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren ikasleen guztizko kopurua	%	% 0,40	Truke-programa honetan parte hartzen duten europar ikasleen % 0,40
	ED.34	Erasmus programaren onuradun diren lanbide heziketako euskal ikasleen nazioarteko mugikortasuna	Erasmus LH programaren esparruan nazioarteko zentroetara ikastera joaten diren lanbide heziketako ikasle eta irakasleen kopurua / "Erasmus" nazioarteko mugikortasun-programaren onuradun diren LHko ikasle eta irakasleen osoko kopurua	%	% 0,08	Truke-programa honetan parte hartzen duten europar ikasleen % 0,08
VIII. ENERGIA ETA INGURUMENA	M.35	Euskadiko produktu energetikoen esportazioek guztizko esportazioetan duten pisu erlatiboa	Euskadiko produktu energetikoen* esportazioen balioa / Euskadiko esportazioen guztizko balioa	%	% 10,86	Produktu energetikoen munduko esportazio guztien % 0,13
	M.26	Munduko CO2-aren isurien euskal kuota	Euskadin isuritako CO2 tona baliokideak / Mundu-mailan isuritako CO2 tona baliokideak	%	% 0,04	Munduko ekonomian sortutako CO2 Kilotona baliokide guztien % 0,04
	M.27	Euskal Ingurumen Ondarearen Nazioartekotzea	UNESCOK Euskadin deklaraturako "Biosfera Erreserbak" / Mundu-mailan deklaraturako "Biosfera Erreserba" guztiak	%	% 0,1457	UNESCOK munduan "Biosfera Erreserba" deklaraturako 686 naturaguneetako bat
IX. GIZARTEA	S.28	Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle atzerriarrak	Biztanle atzerriarrak / Euskadiko biztanle guztiak	%	% 7,62	Jaio ziren herrialdeaz bestelako herrialde batean mundu mailan bizi diren pertsonen % 0,06
	S.29	Euskal instituzio eta erakundeek finantzaturako Nazioarteko	Euskal instituzio eta erakundeek finantzaturako Nazioarteko Garapenerako Lankidetzarako	Miloi eurotan	69,5	Mundu mailan guztira jasotako Laguntza Ofizial Garbiaren % 0,05

DIMENTSIOA	ZK.	ADIERAZLEA	ADIERAZLEAREN OSAGAIK ETA KALKULUA	NEURKETA-UNITATEA	EUSKADI REN BALIOA 2. Erradiografia	MUNDUKO KONPARAZIOA
		Garapenerako Lankidetzarako proiektuetara bideratutako laguntza	proiektuetara bideratutako laguntzaren zenbatekoa			
	S.30	Euskal gizartearen pentsamolde globala	Inkesta batean oinarrituta landutako pertzepzio-adierazlea	Maila globalean izandako gertaerek beren biziaren eragina dutela (handia edo handi samarra) adierazten duten euskal herritarren %	66,35%-eta 73,65% bitarteko tartea	Mundu mailan ezin konparatu daitekeen adierazlea
	S.31	Giza Garapenaren Indizea (GGI)	Giza garapenaren funtsezko dimentsioetan erdietsitako batez besteko lorpenen adierazle sintetikoa: jaiotzako bizi-itxaropena, hezkuntza eta bizi-maila	Indizearen balioa (0 eta 1 bitartean)	0,926	Euskadi munduko hamabigarren postuan dago
	S.36	Eusko Legebiltzarrean dauden Emakumeen Kopurua	Emakumeek parlamentu nazionalan okupatzen dituzten jarlekuen proportzioa (%)	%	% 53,3	Euskadi Munduko Bankuak ebaluatutako 199 herrialdeen rankingaren bigarren postuan dago, emakumeek parlamentuan duten ehunekoari dagokionez
X. GOBERNUA, EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALA	G.37	Gobernu Kalitatearen Europako Indizea	Euskadiko digitalizazio maila DESI* indizearen arabera (100aren gainera)	%	% 62,99	EB28k baino % 9,01 gehiago
	G.38	Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizea (DESI)	Gobernu Kalitatearen Europako Indizea	Indizea	0,6520	Europako 193 eskualdeen artean, Euskadi 66. postuan dago